

Angelu itsua

Politika, ekonomia eta historia



Hasiera » Gizartea » Aberria eta askatasuna

URT
04

0

Aberria eta askatasuna

Atalak: Gizartea, Historia



XIX. mendeko Kubako esklabotza kapitalismoaren aurpegiak makurrena izan zen

Euskaldunek Kubako independentzia gerretan izandako jokaeraz liburua argitaratu du Txalapartak: *Patria y libertad. Los vascos y las guerras de independencia de Cuba (1868-1898)*. Benetan gomendagarria. Irakurlea segituan konturatuko da euskaldunak mundutarrak garela. Liburua hezurmamitzen duen aferatako bat esklabotza da. Ezin bestela izan XIX. mendeko Kubaz aritzean. Eta esklabotzaz aritzean, ezin Julian

Zulueta (1814-1878) aipatu gabe utzi, "Ameriketako azken negrero handia", Hugh Thomasen aburuz.

Lehenago ere ekarri izan ditugu gurerarabar tratantearen kontuak, eta pertsonaia horretan sakondu nahi duenak Eduardo Marreroren *Julián de Zulueta y Amondo. Promotor del capitalismo en Cuba* (Habana, 2006) liburua irakur dezake. Bestalde, dokumental bat ere abian da Angel Katarain eta Amaia Apaolazaren esku, *Siete Calles de la Habana* proiektuaren baitan (aurrerapena ikusteko, [hemen](#)).

Norbaitek pentsatzen badu Kubako esklabotza Moisesen denborako ohitura atzeratu baten azken uztarra zela, oso oker dago. XIX. mendean, ingelesen abolitura izanagatik ere, Kuban sekulako gorakada izan zuten azukre fabrika edo "ingenioek" eta eraginkortasun handiz –termino enpresariala erabiltzearen– esplotatzen zituzten ilegalki importaturiko esklaboa. Esklabo trafikoak 1859an jo zuen goia: 30.473 gizon eta emakume eraman ziren urte horretan Antilletako irla handira.



Eneida Villegas Zulueta, Julian Zulueta's widow, presenting the book 'CENTRAL AZUCARERA' at a literary event.

Esklabotzaren alderdi kapitalista ikuspegi marxistarekin ikertzen lehena, *Manuel Moreno Friginals historialari handia* izan zen, *El ingenio* (Habana, 1964) maisulan miretsian. "Erakusten digu nola gizarte batek erabili dezakeen produkzio teknologia aurreratuena eta bete-betean sartu munduko merkatuan, baina ez horregatik ihes egin azpigarapenari", zioen Josep Fontanak, Críticak argitaraturiko edizio berriaren hitzaurrean.

Julian Zulueta, sakarokrata eta enpresari horien paradigma da. Ustiaren sistema modernoenak erabili zituen bere kanabera sailetan: baporezko makina berriak, ferrokarrilak, konpartimentuekin banandutako barrakoi erraldoiak... Motorra koipeztatzen den moduan, esklaboei txertoa jartzen zien, edota erietxera eraman funtzionatzen ez bazuten. Gizakiaren pribatizazio hutsa, ekoizpen gailu bihurtzeraino.

Baina halakoak ez dira hain arrotz gaur. Pribatizatzen ditugu ospitaleak, aurrezki kuxak, pentsioak... Langileak eta bezeroak esplotazio gordinaren balantzean sartzea besterik ez zaie falta konpainia handiei, herritarra ere pribatizatzea, alegia.

Zorionez, badakigu pelikula nola amaitzen den. Haitin, **Dutty Boukman apez buduak** iratzarrita, milaka esklabo beltzek irlako zuri gehienak hil zituzten eta bertako ingenioak txiki, 1804an askatasuna erdietsi zuten arte. Kuban aldiz, 1868ko urriaren 8ko ilunabarrean, **Carlos Manuel de Cespedesek Demajaguako bere esklabo guztiak askatu zituen**, eta matxetea eskuan oihu eginez, esklabotzaren abolizioa eta Kubaren independentzia ekarri zuen prozesu iraultzailea hasi zuten.

Hortik urte gutxira José Martík bere antzezlan sendoena idatzi zuen: *Patria y libertad* (pdf), aberria eta askatasuna.

URKO APAOLAZA AVILA

Hernani, 1979. Historialaria eta Argian kazetari. Askotan, ispiatuak islatzen ez duena ikusteko, zuzenean atzera begiratu behar duzu (gure Ford Fiesta zaharrari retro-bisoreoa hautsi zioten).

Bilatu:

[Bilatu](#)

AZKEN BIDALKETAK


- ▶ Aberria eta askatasuna
- ▶ CAF, Kutxabank eta espanszionismoa
- ▶ Kataluniako burujabetzaren mapa
- ▶ CAF: argazki panoramikoa
- ▶ Eta burujabetza 1986an aldarrikatu izan bagenu?

IRUZKIN BERRIAK

- ▶ CAF, Kutxabank eta espanszionismoa | Angelu itsua --> CAF: argazki panoramikoa
- ▶ pello-zubiria --> CAF: argazki panoramikoa
- ▶ Iraile --> Atez atekoaz hamar gezur handien rankinga
- ▶ 1936ko fusilazleen frogatzen grafikoa --> Federico García Aitzol
- ▶ urko-apaoala --> George, hain ona al dago?

ARTXIBOAK

- ▶ Urtarrila 2013
- ▶ Abendua 2012
- ▶ Azaroa 2012
- ▶ Urria 2012
- ▶ Iraile 2012
- ▶ Abuztua 2012
- ▶ Uztaila 2012
- ▶ Ekaina 2012
- ▶ Maiatza 2012
- ▶ Apirila 2012
- ▶ Martxo 2012
- ▶ Otsaila 2012
- ▶ Urtarrila 2012
- ▶ Abendua 2011
- ▶ Azaroa 2011
- ▶ Iraile 2011
- ▶ Uztaila 2011
- ▶ Ekaina 2011
- ▶ Maiatza 2011
- ▶ Martxo 2011
- ▶ Otsaila 2011
- ▶ Urtarrila 2011
- ▶ Abendua 2010
- ▶ Azaroa 2010
- ▶ Urria 2010
- ▶ Iraile 2010



Manuel Moreno Friginals-en "El ingenio" liburuak, kapitalismoaren barruko sistema gisa ikusarazi zuen esklabotza.